



**KONTSULTA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO FORU LEGEA ONESTEN DUEN FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA PRESTATU AURREKOA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, arau-proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta erakunde nabarmenen iritzia jakiteko. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille edo ez-erregulatzailleak.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133.1 artikulua aipatzen dituen gaietara konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere aldeztu aurreko kontsulta publikorako, Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legea onesten duen foru legearen aurreproiektua prestatu aurretik, herritarrek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

***a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.***

Foru legediaren esparruan, 2002tik aurrera badago berdintasunari buruzko lege bat: Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea. Gero, Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana (2006-2010) ezarri zen, egun ere indarrean dagoena. Horrek genero berdintasunerako politika orokor bat eratu du eta borondate instituzionala adierazi du; gainera, maila politiko eta teknikoan ardura duten pertsonak konprometitu ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lan egitera, bakoitza bere jarduketara eremuaren baitan.

Arau hori atzean geratu da, ondorengo arauak aurrerapenak egin dituztelako eta egungo errealitatera egokitu beharra dagoelako.

Aurrerapen sozial nabarmenak egin diren arren, gaur egun oraindik ere ikusten da emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak irauten duela era askotan. Horregatik beharrezkoa da abusu larri horiei aurre egiteko erantzun instituzionala eta soziala sakonki berrikustea.



Behar horren ildotik, pentsatu da foru araudia egungo errealitatera egokitzea eta, horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko foru lege bat prestatzea.

### ***b) Onespeneren premia eta egokitasuna.***

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak, indarrean dagoenak, eratu ditu Nafarroako Gobernuaren eta haren mendeko organo eta entitateen ahaleginak, berdintasunaren aldeko ahaleginak, azken 14 urte hauetan.

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Planaren (2006-2010) helburu eta xedeek indarrean jarraituko dute, alor horretan beste plan bat onetsi arte. Plan horrek genero berdintasunerako politika orokorra eratu du eta borondate instituzionala adierazi; gainera, maila politiko eta teknikoan ardura duten pertsonak konprometitu ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lan egitera.

Oinarrizko bi tresna hauek gaur egun atzean geratu dira, gaingiduta, gizartean eta legedian aurrerapenak izan direlako, eta gizarteak erronka berriak dituelako aurrean; izan ere, hainbat oztopo deuseztatu behar ditu, emakumeen eta gizonen berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzea eragozten baitute.

Helburu horren bila aurrera egin beharra eta, horretarako, Berdintasunari buruzko Foru Lege berria prestatzea Nafarroako Gobernurako Akordio Programatikoa ageri da, 2015-2019 legegintzaldirako Parlamentuaren egoitzan sinatuan. Gainera, Nafarroako Gobernuak lortu nahi duen helburua adierazten du: politika publikoak aldatzea foru legedia berrituz, halako moldez non benetan eraginen baitu emakumeen egoeran, estrategia bat bultzatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzinoa sartzearren foru komunitateko administrazio publikoen jarduketa guztietan.

Behar horiei erantzuteko, beharrezkoa da foru araudia egungo errealitatera egokitzea eta, horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko foru lege berri bat prestatzea.

### ***c) Arauaren helburuak.***

Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legea onesten duen legearen aurreproiektua sortuz, egiazko berdintasuna lortu nahi da esparru guztietan, emakumeen ahalduntzea benetan gauzatzea, berdintasun errealeko gizarte baterantz joateko, emakumeak sozialki eta teknologikoki atzean egonen ez diren gizarte baterantz. Zeharkakotasunaren bidez eta bizitzaren iraunkortasuna ardatz gisa hartuta, sexua dela-eta egiten den bereizkeriaren era guztiak baztertu nahi dira egungo gizartetik, erakunde guztietan oinarri batzuk



ezarriz eta era orokorrean lan eginez, emakumeekiko bereizkeria desagertzea lortzeko, historikoki heteropatriarkala den gizarte batean.

Foru Legearen aurreproiektu hau prestatzeak eta Nafarroako Foru Komunitatearentzat berebiziko garrantzia duen proiektu honen gidaritzak ahalbidetuko du gizarte hobea eraikitzea: justuagoa eta oinarrizko eskubideak bermatzen dituena, bai nazioarteko itunetan jasota daudenak bai Espainiako Konstituzioan eta Espainiako nahiz nazioarteko arauetan ageri direnak.

***d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille edo ez-erregulatzailleak.***

Berdintasunari buruzko Foru Lege berria sortu eta egungo Foru Legea indargabetu nahi denez gero, ez dago bestelako aukera erregulatzaille edo ez-erregulatzailerik.